

Auzoz auzo

Altza



Planean 47 gizarte eragilek parte hartu dute

deko eskakizunak inposaketa-tzat hartu ohi dira. Hori horre-lla izan ez dadin, adminis-trazioak, eta batik bat Donos-tiako Udalak, zeregin handia du". Ildo horretatik, euskara-ren alde egin ohi diren ekimen zabalek, Korrika eta Kilome-troak esaterako, euskarari me-sede handia egiten diotela na-barmendu zuten Jon Ander Ve-gak eta Jon Sanchezek.

Konpromisoen txanda

BizaRa In Elkarteak, Euskararen Patronatuarekin elkarlanean, Altzan euskararen normalizazioa lortzeko Plan Estrategikoaren lehen fasea amaitu du. Ateratako ondorioen aurkezpena egin berri da.

Sara Soria

Donostiako Euskararen Udal Patronatuak eta BizaRa In Elkarteak hitzarmena sinatu zuten 2001eko abenduan. Helburua "Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra" Altzan garatzea zen. Orain arte planak ikastetxeak, kultura eta gazteen aisialdia izan ditu aztergai. Litekeena da, hala-ber, egitasmoa irailetik aurre-

ra auzoko lan mundura, mer-kataritzara, ostalaritzara eta zerbitzuen sektorerara zabal-zea.

Lehen fasean 47 gizarte eragilek parte hartu dute, eta bilerak egin dira sektore bakoitzean euskararen diagnostia egiteko eta helburuak zehaz-teko.

Emaitzen aurkezpena

Jon Sanchez eta Jon Ander

Vega BizaRa In-go teknikariek azterketaren ondorioak aur-keztu berri dituzte. Euskara-ren erabilerari dagokionez, altzatarren %71 ez dela eus-kalduna aipatu zuten. Dena dela, ondorioztatu da auzoan euskararen ezagutza handi-tzen ari dela, ikastetxeetan gero eta haur eta gazte eus-kaldun gehiago dagoelako.

Bestalde, BiziRa In-en txos-tenak Altzan euskaraz bizi nahi dutenekiko sentikortasun gutxi dagoela eta helduek euskara politikarekin lotu ohi dutela ohartarazi du. BiziRa In-go teknikariek gaineratu dute-nez, "askotan euskararen al-

Azkenik, hezkuntzari dago-kionez, auzoan hezkuntza osoa ezin dela euskaraz egin mahai-gaineratu zuten. Izan ere, Lan-bide Hezkuntzan eta zenbait akademiatan, esaterako, ez dago euskaraz ikasteko auke-riarik.

Hemendik aurrera, planean parte hartu duen gizarte eragi-le bakoitzak konpromisoak hartu beharko ditu auzoan euskararen normalizazioa bul-tzatzeko, eta, bide batez, Bai Euskarari ziurtagiriak lortu ahal izateko.

Kafea **RELOJ** Taberna

Bulebarra 20 • Donostia • (943)42 97 09

San Telmoko Goilarea

Pintxoak, Kaxuelak, Miniatura Sukaldaritzza eta Platerekoa

Abuztuaren 31. kafea • 20003 DONOSTIA

MARCOS

Okindegia eta etxeko gozoak

Ubarburu P., 4-5 pabiloiak • 27 Industrialdea
- Tel: (943) 45 09 66 • ASTIGARRAGA